

«Sagardotegiko giroarekin askoz gehiago disfrutatzen da sagardoaz»

A. A

Iaz hiru txapelketa nagusiak irabazi zituen Juan Martinez Irujok (Ibero, 1981): buruz burukoa, binakakoa eta lau t'erdikoa. Hiru txapelak sagardotegian ospatu zituen. Horrenbestez, oso leku bereziak dira beretzat. Sagardoa oso gustuko du, eta baita sagardotegiko menua ere: «Jatun ona naiz». Sagardogileen gonbidapena eskertu, eta halako ekitaldi batean parte hartzea ohorea zela nabarmendu zuen.

Noiz jaso zenuen denboraldia zabaltzeko proposamena?

Duela aste batzuk jaso nuen, eta eskerrak eman behar dizkiet Astigarragako sagardogileei gonbidapena egiteagatik. Niretzat ohore handia da Euskal Herriarentzat hain garrantzitsua den egun batean parte hartzea.

Gustuko al duzu sagardoa?

Izugarri. Gainera, sagardotegietan izaten den giroarekin askoz gehiago disfrutatzen da sagardoaz

Eta menua?

Bai. Jatun ona naiz, eta gustatzen zait.

Pilotari guztiek sagardotegian ospatzen dituzue txapelak. Zergatik?

Dagoen giroagatik, eta sagardotegietan beste edozein jatetxeetan baino jende gehiago sartzen delako.

Martxoan binakako txapelketako finala jokatuko da. Hartu al duzu lekua sagardotegian?

Oraindik ez (kar, kar, kar). Txapelketa hasi besterik ez da egin, baina espero dezagun dena ondo joatea eta finalera iristea.

Olaizola anaiek sagardotegia dute. Zuri gustatuko al litzaizuke bat zabaltzea?

Bai, baina ez dut uste egingo dudarik. Iberon ez baitago sagardotegirako ohitura handirik.